

## **61. OSOKO BILKURAKO AKTA**

Zumaiako herrian, 2012ko abenduaren 26an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalatzako kide hauek bertaratu dira:

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Iñaki Ostolaza Esnal jn

Arritokieta Gonzalez Elosua and.

Maitane Agirre Arrieta and.

Montse Arana Perez and.

Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.

Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

Aitor Leiza Alberdi jn

Azis Alberdi Zaldunbide, jn.

Ana Arranz Irigoyen, and.

Edurne Egaña Manterola, jn.

Eneko Agirre Maiora jn.

**EZ BERTARATUAK:** Isidro Fernandez Echave jn.

**IDAZKARIA:** Gorka Urgoiti Agirre

2012IAKU0012

## EGUNeko AZTERGAIAK

### 1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (56. zbkia- 2012.07.23; 58. zbkia- 2012.09.27; 59. zbkia- 2012.10.30; 60. zbkia 2012.11.26)

**ERABAKIA:** 56. 58., 59. eta 60. aktak onartu dira

### 2.- OGASUNA.-

#### 2.1.- IRIZPENA: 2013 EKITALDIRAKO AURREKONTUAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA

#### 2012KO ABENDUAREN 18KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2013. URTERAKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEARI BURUZKOA

##### AURREKARIAK

1.- 2012ko azaroaren 20ko Ogasun Batzordean, Zumaiako Udalaren 2013rako Kontu Orokorraren proiektua aurkeztu zen. 2013rako aurrekontuaren proiektua beste hiru Ogasun Batzordetan aztertu da, abenduaren 4an, 11an, eta 18an.

2.- Osoko Bilkurarako, Kontu Orokorraren kopia gehiago ez banatzea behin betikoa izan arte (Erabakia fotokopiak aurrezteko hartu da). Ogasun Batzordeko taldekide bakoitzak bere talde politikoari, Osoko Bilkuran bozkatuko den Kontu Orokorra azalduko diolako.

3.- Abenduaren 18ko Ogasun Batzordean ondorengo irizpena eman zen:

##### IRIZPENA

Ondorioz, 2012ko abenduaren 18an, BILDU (2) eta ARALAR (1)en aldeko botoekin, EAJren abstentzioarekin(2) eta PSOEren (1) kontrako botoarekin, Ogasun Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatza osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluaren lehen puntuaren araututakoari jarraituz, erabakia hartzeko udalatzako bertan daudenengen gehiengo soila nahikoa da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2013ko Aurrekontu Orokorreitik, eta Udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hamabost egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketa epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin-behinekoa zen erabakia behin betiko hartutatzat ulertuko da.

Zumaian, 2012ko abenduaren 18an  
Zumaiako kontu-hartzaleak

**Arritokieta Gonzalezek** (BILDU) 2013ko aurrekontuen aurkezpena egin du power pointeko irudiez lagunduta. Irailean hasi zirela lehen zirriborroa lantzen, herritarren

ekarpenez gain EAJ-PNVk aurkeztutako zortzi proposamen eta PSE-PSOEk aurkeztutako beste bi barneratu dituztela adierazi du. Aurrekariei dagokionez, udalaren egoera, udala bera bakarrik hartuta, 2012. urtean eskatu zuen mailegu bat daukala, 318.000 €koa, alegia, eta horrek udalaren zorpetze maila 2,4an jartzen duela, baina urrutit geratzen dela Gipuzkoako bataz besteko beste herriek daukaten zorretik % 6,6kotik. Bestetik, Zumaia Lantzen betiko moduan likidezia falta izugarriarekin jarraitzen duela aipatu du. Aurrekontuak lantzeko ardatz nagusi bezala Foru Aldundian aurkeztu zen Plan Ekonomiko Finatzarioa erabili da; beste urtebetetan murrizketak gastu arruntean eta gizarte zerbitzuetan murrizketarik ez aplikatzea. Gaineratu du, urte gutxi sortu diren sail batzuk indartu egin dituztela, esaterako gazteria, aniztasuna eta berdintasun sailak. Langileen soldatei dagokionez kongelazioa aplikatu dutela Madritik inposatzen duten dekretua aplikatuz eta inbertsioei dagokionez, ez dela inbertsio handiak egiteko garaia iritzi diotelako, oinarrizko gaietara mugatu direla esan du. Herriko eragile desberdinei dagokionez, diru laguntza orokorrean mantendu egin dute, nahiz batzuk ukitu izan, adibidez, kirol arloan eta alderdi politikoei ematen zaien diru laguntzetan murrizketak daude.

Ondoren, batetik, sarrerak eta, bestetik, gastuak aurkeztu ditu. Diru-sarrerei dagokionez, zerga zuzenak %5,5ean igo direla eta nabarmendu du etxebizitza hutsei ezarri zaien errekargua. Zeharkako zegak, berriz, 2013an Torreagako promozioa gauzatuko dela espero dute eta, hortaz, %90eko igoera ekarriko duela bigarrengoa kapituluan. Hirugarren kapituluan, tasei dagokionak, ordenantzatan onarturikoak aplikatuz sarreren %2,6ko igoera dagoela. Laugarren kapituluan, Transferentzi arruntak, gehiengoa Foru Aldunditik jasotzen den Fondo Foralak osatzen duena, hain zuzen, Foru Aldundiko datu ofizialaren arabera 2012ko maila berdintsuan edo gorakada txiki bat izango duela argitu du. Seigarren kapituluari dagokionez, inbertsio errealearen besterenganatzeko, alegia, Zumaiko Udalak Xey industrialdean daukan lur sail bat enkantean jarriko duela iragarri du eta lur honen salmentatik aurreikusi den diru sarrera, tasazio desberdinatik kontserbadoreena jarri dutela adierazi du. Zortzigarren kapituluan, Finantza aktiboetan, Zumaia Lantzenek udalarekin daukan zorra eta langileei ematen zaizkien maileguak osatzen dute. Finantza pasiboei dagokionez, finantza pasiboeetan egoten diren sarrerak eta gastuen arteko desberdintasuna berdintzeko diru-kopurua osatzen duela, eta defizita zero bete beharra dagoenez, aurten ez dagoela esan du.

Jarraian, gastuak kapituluz kapitulo aurkeztu ditu. Lehenengo kapitualuari dagokionez, pertsonal gastuak alegia, soldaten izozketa aurreikusi da eta 2012tik konparatuz, aurrekontuan sarturik daudela 2012an udara sasoirako hartu ziren bi peoiak; 2013an aurreikusten dela urte guztian zehar kontratatzea; kulturako bigarren atezaina, berriz, lan orduak lehenago %50a zeudenak, orain ehunera igotzea aurreikusten dela, eta, azkenik, Kontuhartzaitzako erdi mailako teknikaria 2013an gauzatzea espero dutela. Bigarren kapituluan, gastu arruntean, %4,81eko murrizketa dagoela eta horretarako udalak egunero behar dituen baliabideen erabilpena (argia, gasa, garbiketak eta funtzionatzeko behar dituen beste baliabideak) optimizatuz eta eguneratzeko dauden kontratuak eguneratzuz lortuko dutela. Laugarren kapituluan, Transferentzi arruntei dagokionez, %1,1eko jaitsiera dagoela adierazi du: gizarte larrialdietako laguntzak 2012tik mantendu egiten dituztela eta, bestalde, murrizketak egitea erabaki dutela kiroletako diru laguntzetan, berrantolaketa egin bait da, eta, ekitatiboago izateko nahiarekin, klub-en arteko berrantolaketa egin dela diru laguntzetan eta, azkenik, talde politikoei ematen zaien diru laguntzetan urte askotan ukitu ez den partida bat dela

2012IAKU0012

iruditzen zaielako %25 inguruko beherakada aurreikusi dutela. Inbertsioetan, berriz, orain inbertsio handiak egiteko garaia ez dela iritzi diote eta lehentasunak ezarri behar direnez, beharren artean ondorengo inbertsioak egitea sartu dituztela: Artadiko saneamendua, sabaiaren erabilera publikoa duten garajeak, Beheko plaza txukuntzea, Ur hornidura eta saneamendua, Frontoiaren obra zuzendaritza, Oikiako eskola, San Jose proiektua, Monja-Xaharren oinarrizko proiektua, Oholtzaren estalkia erostea, Hiriaren zaintza eta mantenimendua orokorrean. Gaineratu du, 2013ko aurrekontuetan aurrezki garbia 650.000 € ingurukoa dela eta hori datu ona dela, alde batetik, adierazten duelako sarrera arrunten bidez gastu arruntak estaltzen direla eta, beste aldetik, inbertsio gaitasuna adierazten duelako. Zortzigarren kapituluari dagokionez, finantza aktiboetan, Zumaia Lantzenek Udalari 2012an bueltatu behar zion epe motzeko mailegua eta bueltatu ez zionez epe luzerakoa bihurtzen dela esan du, hortaz, extrapresupuestarioa izatetik 2013ko aurrekontuetan presupuestarioa izatea pasatzen dela eta, ondoren, 8.000 €ko langileei ematen zaizkien maileguak osatzen dute; gaineratu du, lehenago kantitate handiagoa zela eta EAJ-ren emendakin bat izan zen murriztea baina zabalarri moduan uztea eta onartu dela.

Jarraian, organismo autonomo eta Zumaia Lantzenen aurrekontuak aipatu ditu: San Juan Egoitzaren aurrekontua guztira %5,53an igo dela, bere aurrekontu guztira 1.816.142€koa delarik eta udalak egin behar dion aportazioa 249.042€koa.

Musika Patronatuari dagokionez, aurrekontua %5,17an jaisten dela eta aurrekontu totala 190.328 dela eta udalak egiten dion ekarpena bitan banatuta dagoela, izan ere 2.000€ko inbertsioa Kapital Transferentzi bezala sartzen da aurrekontuetan.

Kirol Patronatuaren aurrekontu totala 1.070.530 € dela, eta udalak egiten dion aportazioa banatuta dagoela, 40.000 inbertsioetarako erabiliko baitituzte eta kapital transferentzi bezala sartzen dela; Udalak egiten dion aportazioa iaztik %2an murrizten dela argitu du.

Zumaia Lantzenen aurrekontu totala 2.458.068 €takoa dela, likidezia faltarekin jarraitzen duela gaineratu du, nahiz eta bere zordun txiki guziekin zorrak kitatu dituen, oraindik hartzekodun bat duela, Obegisa, alegia, egin dituen obrengatik eta gero udalarekin eta banketxeekin zorrak dituela.

Udalarekiko zorra, lehenago handia zela baina 2012an egin den operazio kontable bati esker udaletxeari zor zion dirua zubi batez ordaindu duela Zumaia Lantzenek zeukan zorraren parte handia bat, eta ia 925.000 €ko zor hori bakarrik gelditzen zaiola udalarekiko.

Diru sarreretan datorren urterako aurreikusten dute Zumaia Lantzenek ADU21eko auzia benetan bukatzea eta hortik diru sarrera bat edukitzea; bestetik, Odietako bost etxe eta bost trasteroak saltzea aurreikusten dutela.

Zumaia Lantzenek jarraitzen duela oreka finantzarioaren bila eta, euren iritzian, bi faktore oso garantzitsuk baldintzatuko dutela etorkizuna: batetik, Odietako etxe salmentak -salmenta bakoitza Bankoarekin daukan kredito hipotekarioari kentzen dio pusketa eder bat- eta, bestetik, Torreagako promozioa garatzen bada etxebizitzen salmentarekin likidezia arazoak konpondu litezkeela esan du. Bukatzeko, beste gauza batzuk ere burutzen ari dela, besteak beste, ondasunak saltzearena; egun Zumaia Lantzenek eguneroko gastuak minimoetara murriztuak dauzkala eta egoera zuzentzen ez den bitartean ez duela operazio gehiago gauzatuko.

Azkenik laburpen moduan esan du, udalaren aurrekontua guztira 12.221.560 €takoa dela eta aurrekontu bateratua 15.977.028 €takoa. Aurkezten diren aurrekontu hauek

betetzen dutela alde batetik, Foru Aldundian aurkeztutako Plan Ekonomiko Finantzarioa, bestetik, Madritik etorri diren hiru lege berri hauek ere betetzen dituela: lehenik, aurrekontuen egonkortasun legea, hau da, defizita zero duten aurrekontuak dira; bigarrenez, Finantzatzen dion egonkortasun legea, hau da, aurrekontu bateratuaren zorpetze maila %55a baino txikiagoa da; eta, hirugarrenez, gastu finantzarioen mugaren legea ere betetzen du, hau da, gastu finantzarioak iaz baino %1,7a baino gehiago ez dira handitu. Bestalde gastu arrunta murritzeko egin duten ahalegina aipatu du eta baliabideen optimizazioarekin eta kontratuengunera zearekin, batik bat, lortu nahi dutela hori, eta zerbitzu maila mantenduz, beraz, egoera honetan herritarrei, euren iritzian, aurrekontuek garbi adierazten dutela herritarren ongizateari begira aurkeztutako urrekontuak direla.

**Edurne Egañak** (EAJ-PNV) esan du EAJ ez datorrela bat aurrekontu eredu honekin, izan ere inbertsioak aurrekontuaren %9 inguruoko baino ez dira, eta gastu arrunta, berriz, 4,6 bakarrik murritztu da eta, nolanahi ere, % 80atik gora izaten jarraitzen du gastu arruntak.

Euren ustez, modelo honekin ez zaio modu egokian erantzuten bizi dugun egoera ekonomikoari eta aurkeztu diren aurrekontuak ez diote Zumaia dituen erronkei modu egokian erantzuten.

Aurreikusitako inbertsioek etengabeko jaitsiera progresiboa pairatzen ari dira urtez-urte eta, gainera, aurreikusten diren inbertsioak ere oso exekuzio baxua izaten ari dira, aurten adibidez gauzatzen ari diren aurrekontuak 2012ko aurrekontuak % momentuz 16 inguruo exekuzioan dabil inbertsioari dagokionez eta, beraz, badirudi ez dela ez inbertsio handiak ez eta txikiak egiteko garaia. Iritzio diote, gainera, oinarrizko gaietan ere ez dela ari inbertitzen, izan ere %16 edo %18ko inbertsioa oso txikia da.

Nahiz eta 2008 urtetik funtzionamendu gastuak %25 igo diren, igoera izugarri horrek – 2006 urtetik hona gastu korronteak %40 inguruo igoera izan izan du- ez duela zerbitzuen kalitatearen hobetze proportzionala ekartzen esan du.

Zorpetze mailari dagokionez, adierazi du, Zumaiko udalaren egoera beste herri batzuena baina hobea izanagatik ere, ez duela esan nahi udalaren egoera ona denik; 2013. urte honetan, zorpetze berririk aurreikusten ez bada ere, udala ondarea saltzera doa - Xey poligonoko lur sail baten salmentagatik diru-sarrera bat aurreikusten dute aurrekontu hauek- eta, gehitu du, hori dinamika baten hasiera baldin bada, hori zorpetzea bezain kezkagarria izan daiteke, izan ere finean deskapitalizazioa suposatzen duelako. Horrek adierazten du udal gobernuak ez duela plangintzarik poligonoa garatzeko; EAJk, berriz, Zumaiko industrialerako gune oso interesgarritzat jotzen du.

EAJren ustez, aurkezten diren aurrekontuak epe ertainera ez dira iraunkorrak, aldaketak behar dituela; nolanahi ere, nahiz ereduarekin ados ez egon zenbait zuzenketa proposatu dituztela adierazi du, oposizio eraikigarria egin nahi baitute Zumaiaik aurrera egin dezan. Gogorat udu 56 zuzenketa proposatu zituztela eta 8 onartu zaizkiela eta eskertzen dutela, baina ez dute nahikotzat jotzen, izan eren abarmenenak ez bait zaizkie onartu; horregatik, plenora ekarri dituzte ondorengoak:

1) igogailua jartzeko programa eta fatxadak margotzeko programa sortzea -orain arte bazeuden aurrekontuan bi programa horiek, desagertu egin dira-, euren ustez mantendu egin behar dira, EAJren etxebizitza politikak bi zutabe baititu: batetik, etxebizitza zaharrak eraberritzea salmentara atera ahal izateko eta modu egokian kontserbatuta egon eta horiek merkaturatzeko, eta, bestetik, alokairura zuzendutako babes ofizialeko etxebizitzak egitea. Horregatik proposatzen dute horietarako partidak 15.000 eta 20.000€tan mantentzea.

2) bosgarren edukiontzia zabaldu eta optimizatzeko ekimenak aurrera eramateko partida bat egotea proposatzen dute. Partida orokor bat zegoela “sentsibilizazio kanpaina” izena zuena eta EAJk orokortasun hortik atera eta esplizitoki bosgarren edukiontiaren kontua berezko partida bat sortzea, EAJk egiten duen apustuaren adierazle.

3) inbertisoi dagokionez, Patxita Etxezarreta eta Axular ibiltokien eraberritzea proposatzen dute. Patxita Etxezarretak bere ezaugarriagatik eta hor dagoen komertzioagatik bulebarizazio edo moduko eraberritze bat izan beharko luke Axular Ibiltokian, berriz, ekimenak bi zati bereizi beharko lituzke, alde batetik Patxita Etxezarretak bere ezaugarriagatik eta hor dagoen komertzioagatik eta beste bulegarizazio edo moduko eraberritze bat izan beharko luke eta Axular ibiltokiak, agian, nahikoa du konpontzearekin eta egokitzearekin.

4) EUDELi kentzen zaion 2.000 €ko, EAJk 2.000€tako diru lagunza mantentzea proposatzen du, usten dutelako EUDEL-ek zinegotzioi ematen dien babes eta lagunza importantea baita.

5) auditoria gastua ere mantentzea proposatzen dute. Memorian aldarrikatzen den transparentzia eta herritarrekin partaidetzaren printzipioak eutsiz, auditoriak ekarpen positiboak ematen dituelako zentzu horretan.

Horiek finantzatzeko zenbait partida jaistea eskatzen dute, lehenengo kapitulua gehikuntza bat zegoelako, jaistea planteatzen dute eta, bestetik, inbentarioa idaztea bi urtetan egitea, urtebeterako aurreikusten dena bitan banatzea, eta, azkenik, kreditu globalatik beste kopurutxo bat ateratzea.

Bukatzeko esan du, euren abstentzioa emango dutela, izan ere egoera zail honi egoki gidatu ahal izateko kudeaketa publikoa zuzendu behar duen adostasun beharra ikusten dutelako, eta ez udal-gobernuaren kudeaketa validatu nahi dutelako; elkarritzetari, negoziaketari, eskua luzatzeko baizik.

**Emiliano Cabañasek** (PSE-PSOE) esan du egoera ekonomikoa bere horretan jarraitzen duela, nahiz eta udal gobernuak asko hobetu aurrekontuen azalpena egiterakoan. Sentitu du egoera zuzentzeko ahaleginik ez egin izana, eta zehazki aipatu du gastu arrunta mantendu egin dela inbertsioen kaltetan; euren iritziz, inbertsiorik ez badago ez da diru-sarrerarik sortzen eta aurrekontuen zati handiena pertsonal eta gastu arruntak jango dute. Kapitulu hauek udal-aurrekontuaren %40-50 suposatzen baitute. Gainera diru-sarreren inguruan, esan du, udalaren eskuetan ez dauden zenbait faktorepei lotuta daudelako, Torreaga esaterako, aurrekontua ezerezean geratzeko arriskua duela. Hortaz, aurrekontuek oso oinarri ahula dute aurreikusitako helburuak lortzeko. PSE-PSOEek egin dituen bi proposamenak gauzatutzat eman ditu udal-gobernuak; aitzitik, euren ustean, batetik, San Jose Auzoaren birurbanizazioari dagokionez, 20.000 € besterik ez dira gehitu, ez dute beraz inbertsio produktiborako ematen, eta, bestetik, alderdi politikoei buruzko partidei dagokienean, esan du planteatzen den murrizketa -%25koa- ez dela ekonomikoki esanguratsua aurrekontuaren ikuspuntutik, baina alderdi politikoei, berriz, eragiten die. Hori guztiagatik, San Joseko partida gehitzeko proposamena eta alderdi politikoei transferentzia aurrekontuek duten %5eko murrizketa aplikatzea proposatzen dute eta ez %31.

**Aitor Leizak** (ARALAR) esan du aurrekontuak egiterakoan Bildukoekin Aralar lanketa horietan hor egon dela eta bat datorrela Bildurekin erabat.

2012IAKU0012

Ondoren, Arritokieta Gonzalezek (BILDU), Edurne Egañak (EAJ-PNV) eta Emiliano Cabañasek (PSE-PSOE) eztabaidan jarraitu dute batzarraldiaren grabaketan jasotakoa adieraziz.

Lehendabizi EAJ-PNVren emendakinak bozkatu dira:

### **ERABAKI ZATIA**

Aldekoak: 5 boto (4 EAJ-PNV, 1 PSOE-PSE)  
Kontra: 7 boto (6 BILDU, 1 ARALAR)  
Abstentzioak: 0 boto

**ERABAKIA:** Ez dira onartu EAJ-PNVek aurkeztutako emendakinak.

Jarraian, PSE-PSOEren emandakinak bozkatu dira:

### **ERABAKI ZATIA**

Aldekoak: 1 boto (1 PSE-PSOE)  
Kontra: 7 boto (6 BILDU, 1 ARALAR)  
Abstentzioak: 4 boto (EAJ-PNV)

**ERABAKIA:** Ez dira onartu PSE-PSOEk aurkeztutako emendakinak.

Azkenik, aurrekontuen proposamena bozkatu da:

### **ERABAKI ZATIA**

Aldekoak: 7 boto (6 BILDU, 1 ARALAR)  
Kontra: 1 boto (1 PSE-PSOE)  
Abstentzioak: 4 boto (4 EAJ-PNV)

**ERABAKIA:** 2013 ekitaldirako aurrekontuak onartu dira

---

## **2.2.- IRIZPENA: 2012KO ABENDUAREN APARTEKO ORDAISARIAREN KREDITUA EZ ERABILGARRITZAT AITORTZEA, BIDEZKO BADA.**

**2012KO ABENDUAREN 11KO OGASUN BATZORDEKO IRIZPENA: 2012KO ABENDUAREN APARTEKO ORDAISARIAREN KREDITUA EZ ERABILGARRITZAT AITORTZEKO.**

### **AURREKARIAK**

2012IAKU0012

- 1.-20/2012 Errege-Dekretu-Legeak 2. artikuluko 4 Atalean zera dio: "2012ko abenduaren aparteko ordainsariaren kentzetik datozen ekarpenak eta gehigarrien ordainketatik, berariazko osagarrietatik edo ordainketa gehigarrien baliokideetatik datozen ekarpenak, etorkizuneko ekitaldian pentsio-planetara edo aseguru-kontratueta zuzenduko dira, barne, erretiro-gertakizuna estaliz; Aurrekontu- Egonkortasuna bermatzeko eta finantzazio-iraunkortasuna sustatzeko 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.
- 2- 2012ko urriaren 23ko ohar informatzaile berriak, 2012ko irailaren 5eko ohar Informatzailea aldatzen du, eta 20/2012 Errege-Dekretu-legearen ( aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa) 2. artikulua zehazten du, bai eta 2/2012ko Legearen (Aurtengo ekitaldirako Estatuko orokorretarako aurrekontuena) 23. artikulua ere.
- Esaten duen arabera:
  - Abenduan jasoko ez diren aparteko ordainsarien kredituak, berariazko osagarrien ordainketa gehigarriak eta aipaturiko hilabetearen ordainketa gehigarri diren baliokideak ,ez-erabilgarri bihurtu behar dira. Horretarako ez erabilgarritasun akordioa hartu behar da.
  - Aurreko akordioak 2012ko aurrekontuaren likidazioan defizit txikiagoa eragingo du, edo hasiera batean Europako Kontuetako Sistemari dagokionez, aurreikusitako superabita baino handiagoa eragingo du. Superabita ematen bada, 2/2012 lege Organikoko 32. artikuluaren (Aurrekontu- Egonkortasuneko eta Iraunkortasun Finantzariokoa) aplikazioagatik, bere kopurua maileguen garbia txikiagotzeo erabili beharko da.
  - 4 atalak esaten duenaren arabera, aipatutako ordainsarien kentzetik ondorioztatutako kantitateak, etorkizuneko ekitaldian pentsio-planetara edo aseguru-kontratueta zuzenduko dira, barne, erretiro-gertakizuna estaliz; Aurrekontuen Legeetan hurrengo urtean edo urteetan esango den moduan.Beraz, legeek kopuru hauek aplikatzea erabakitzet dutenean, legean ezartzen den moduan egin beharko da.
  - Osoko Bilkurari dagokio, bai kreditua ez-erabilgarri bihurtzea bai eta berriro erabilgarri bihurtzea ere.

#### **IRIZPENA**

Beraz 2012ko abenduaren 11ko Ogasun Batzordeak, 2012ko abenduaren aparteko ordainsariari buruzko kreditua, ez-erabilgarritzat jotzea hitzartu du, bertaratuen guztien aldeko botoarekin.

Bozketaren emaitza:

Alde:5 botoak (BILDU-a ( 2), ARALAR( 1) PNV( 1) PSOE(1))

Aurka: 0 boto

Abstentzia: 0 boto

Ondorioz, 2012ko abenduaren 11n, Ogasun Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikulan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako kideetatik bertaratutakoehiengo sinplea beharko da):

1.- Abenduan jasoko ez diren aparteko ordainsarien kredituak, berariazko osagarrien ordainketa gehigarriak eta aipaturiko hilabetearen ordainketa gehigarri diren baliokideak, ez-erabilgarri bihurtzea erabaki da.

Zumaian, 2012ko abenduaren 11n.  
Kontuhartzalea.

Miguel Zubizarreta Elicegui

2012IAKU0012

**Iñaki Ostolazak** (BILDU) gaia aurkeztu du eta erabakia udalari ez ezik organismo autonomoei ere eragiten diela adierazi du.

## ERABAKI ZATIA

Aldekoak: **12 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Kontra: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**ERABAKIA:** 2012ko abenduaren aparteko ordaisariaren kreditua ez erabilgarritzat jotzea onartu da

---

## 3 .- HIRIGINTZA.-

### 3.1.- IRIZPENA: ZUMAIAN EKITALDI ZIBILAK EGITEKO UDAL ORDENANTZA BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

**2012KO ABENDUAREN 20KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAN EKITALDI ZIBILAK EGITEKO UDAL ORDENANTZA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEKO.**

## AURREKARIAK

1.- Estatu ez-konfesional eta laiko batean, erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dutela gauza jakina da gizartearen, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da.

Ekitaldi zibilak (hiletak, ezkontzak edo/eta omenaldiak) egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizitza aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Gure gizartearen edo herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko edo bestelako ekitaldi zibilak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Zumaiko Udalak gizartearen gero eta eskaera handiagoa duen behar bat erantzun behar dio.

2.- Araudi hau toki-erakundeei aitortutako bi ahalen emaitza da; hau da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 4. artikuluan aitortutako erregelamenduak egiteko eta beren buruak antolatzeko ahalen emaitza. Ordenantzaren helburua Zumaiko gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek egin nahi dituzten ekitaldi zibilak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak onartzeko.

## IRIZPENA

Ondorioz, 2012ko abenduaren 20ko Hirigintzako Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

2012IAKU0012

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (BILDU)  
Isidro Fernandez (EAJ-PNV)  
Ana Arranz (EAJ-PNV)  
Emiliano Cabañas (PSOE)

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalatzako bertan dauden gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Zumaian ekitaldi zibilak egiteko udal ordenantza onartzea.

Zumaian, 2012ko abenduaren 20an.

Hirigintza Batzordeko Lehendakaria

Izp.: Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Alkateak** gaia aurkeztu du eta jarraian bozkatzeari ekin diote.

### **ERABAKI ZATIA**

Aldekoak: **12 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Kontra: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**ERABAKIA:** Zumaian ekitaldi zibilak egiteko udal ordenantza behin-behineko izaeraz onartu da.

-----

### **3.2.- PROPOSAMENA:**

**07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELAK ESKUALDATZEKO ETA  
02 HA-PUNTANOETAN ESTALITAKO FRONTOIA ERAIKITZEKO  
ESPEDIENTEA:**

**BEHIN BETIKO ESLEIPENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA**

2012IAKU0012

## **GAIA: 07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELAK ESKUALDATZEKO ETA 02 HA-PUNTANOETAN ESTALITAKO FRONTOIA ERAKITZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Ikusita udalbatzak 2012ko uztailaren 26ean hartutako erabakiaren bidez onartu zituela 07-Ardantzabide areako 7.1 eta 7.2 lursailak besterentzeko espedientea eta AU 02 Puntanueta arean frontoi estalia egiteko administrazio-baldintzen agiria, prozedura irekia, hainbat esleipen-irizpide eta ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintzaren irizpidea xedatzen dituena.

Ikusita 2012ko irailaren 7an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 172. zenbakian lizitazio-iragarkia, bai eta kontratacio-organoaren kontratazaile-profilean ere, interesatuek beren proposamenak aurkez zitzaten.

Ikusita espedientearen jasotako proposamenak aurkezu zirela lizitazio epean.

Ikusita, 2012ko urriaren 26ean Kontratacio Mahaiaren eratu zela eta horrek, teknikarien balorazioa jaso ondoren, CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK SA enpresaren aldeko esleipen-proposamena egin zuela.

Ikusita Zumaiako udalbatzak 2012ko azaroaren 28an egindako ezohiko bilkuraren hartutako erabakiari jarraiki, ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza aurkezu zuen lizitatzaileari, CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK SA enpresari, ondorengo dokumentazioa aurkezteko errekeritu zitzaiola: bere zerga-betebeharak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen agiria (kontratacio organoari baimena eman diezaiok e zuzenean lortzeko ziurtagiri horiek); kontratazko gaitasuna duela ziurtatzen duena edo, kontratacio-organoak hala eskatuz gero, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 64.2 artikuluaren arabera, kontrataua egikaritzean jarriko dituen bitartekoak badituela baieztagatzen duen ziurtagiria; eta behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria.

Ikusita 2012ko abenduaren 17an CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK SA enpresak 179.585,83 euroko behin betiko bermea eratu duela eta eskatutako gainontzeko agiriak aurkezu dituela. Aurkeztutako bermeak hitzez hitz zera zioen: "... no podrá considerarse incumplimiento del contrato a los efectos de este aval, el desistimiento de la adjudicataria que tenga su origen en no llegar al umbral de ventas propuesto...". Hori dela eta, abenduaren 18an CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK SA enpresari errekeritu zitzaiion bost egun baliodeuneko epean abal berria aurkezteko.

Ikusita, abenduaren 21ean CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK SA enpresak bermea zuzenduta aurkezu duela.

Dokumentazioa aztertu ondoren eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu bateratuak, azaroaren 14ko 3/2011 Errege dekretu Legegileak, 151.4 artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera,

### **ERABAKI PROPOSAMENA**

**LEHENA.** Udalbatzak 2012ko uztailaren 26ean onartu eta 2012ko irailaren 7an 172 zk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratazko Legegilearen profilean argitaratu zen Zumaiako Arau Subsidiarioetako Ardantzabide 07 Hirigintza Eremuko Bi Lursail esleitu eta ordainetan

2012IAKU0012

puntanueta 02 hirigintza jarduerarako eremuan pilotaleku estalia egiteko kontratua CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK SA enpresari esleitzea.

**BIGARRENA.** Kontratua esleitu ez zaien lizitatzailleei esleipena jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.** Ebazpen hau CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK SA enpresari jakinaraztea eta kontratua sinatzeko dei egitea. Kontratua 2013ko urtarrilaren 14an, 12:00etan sinatuko da Zumaiako udalean.

**LAUGARRENA.** Zumaiako Arau Subsidiarioetako Ardantzabide 07 Hirigintza Eremuko Bi Lursail esleitu eta ordainetan puntanueta 02 hirigintza jarduerarako eremuan pilotaleku estalia egiteko kontratuaren esleipena kontratugilearen profilean argitaratzea: [www.zumaia.net](http://www.zumaia.net). Era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean esleipena argitaratzea 48 eguneko epean.

**BOSGARRENA.** Sektore Publikoko Kontratuen Legearren Testu bateratuak, azaroaren 14ko 3/2011 Errege dekretu Legegileak, 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, kontratuaren oinarrizko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

**Alkateak** gaia aurkeztu du esleipenarako bidea laburbilduz eta esleipedunak beharrezko dokumentua aurkeztu duenez gero, behin betiko esleipena egin behar dela.

Jarraian, **Ana Arranzek** (EAJ-PNV) abstentzia emango dutela iragarri du nahiz eta operazioa momentu honetan egoki ez ikusi.

**Emiliano Cabañasek** (PSE-PSOE) ez du aldaketarik sumatzen aurreko lehiaketarekin alderatuta eta bere kezka azaldu du abalaren liberazioaren inguruan eta horregatik kontrol zorrotza eskatzen du abalak liberatzerakoan.

Eztabaidatzen jarraitu dute batzarraldiaren grabaketan jasotzen den moduan.

### **ERABAKI ZATIA**

Aldekoak: 7 boto (6 BILDU, 1 ARALAR)

Kontrakoak: 0 boto

Abstentziaok: 5 boto (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

**ERABAKIA:** 07 HA-Ardantzabideko 7.1 eta 7.2 partzelak eskualdatzeko eta 02 HA-Puntanoetan estalitako frontoia eraikitzeko expedientea: behin betiko esleipena onartu da.

---

### **4.- EUSKARA.-**

#### **4.1.- IRIZPENA:**

**ZUMAIAKO UDALEAN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTA BALDINTZAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**EUSKARA BATZORDEA  
AKORDIO PROPOSAMENA**

2012IAKU0012

**GAIA: ZUMAIAKO UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK**

Zumaiako Udalaren Kontratu publikoek nahitaez bete beharko dute, gutxienez, euskararen ofizialtasuna jasotzen duen araubidea:

- EAEko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.
- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.
- EAEko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.
- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearren Testu Bategina (2011).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa.
- Zumaiako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen udal ordenantza.

Honela bada, Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak udalak berak betar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bermatzeko helburua izango dute: oro har, euskararen ofizialtasunaren araubidea betearaziko da. Nolanahi ere, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek hala eskatzen badute, hainbat kontratu euskaraz gauzatzeko neurriak ezarriko dira (berezko ezaugarriak hauek izan daitezke: zerbitzuaren jardueraren gaia; xede taldea; Administrazioaren hizkuntza-araudia, Zuzenbide araudiarekin bat datorrena).

Hizkuntza baldintzak kontratazio modu eta mota guztieta jasoko dira: kontratu irekietan, prozedura negoziatuetan eta kontratu txikietan, bai obra kontratuetan, herri-lanen emakidetan, zerbitzu-kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta hornidura kontratuetan. Halaber, baldintza agiri guztieta; baldintza agiri administratiboetan eta teknikoetan.

Edozein kontratazio egin aurretik eta ondoren, ziurtatu egin beharko da delako enpresa edo norbanakoa gai dela eman behar duen zerbitzua euskaraz emateko. Horretarako, kontratazio guztieta prozedura honi jarraitu beharko zaio hizkuntza baldintzak txertatzeko orduan:

1. Udal sail bakoitzaren ardura da bere kontratazio prozedura guztieta hizkuntza-baldintzak txertatzea eta jarraipena egitea, Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.
2. Euskara Zerbitzuaren aldeko txostena **ezinbestekoa** izango da kontratazioen prozeduran aurrera egiteko.

Euskara Zerbitzuak egindako proposamena aztertuta, 2012ko abenduaren 18ko **Euskara batzordeak** honako **akordio proposamena** egin du:

**Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea Zumaiako Udalean kontratazio publikoetan txertatu beharreko hizkuntza baldintzei, Euskara batzordeak ontzat emandako testuaren arabera.**

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-aulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Hirugarrena.-** Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, **Zumaiako Udalean kontratazio publikoetan txertatu beharreko hizkuntza baldintzak** behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

**Laugarrena.-** Erabaki honen **berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzari ematea**, eta jarraipenerako eta estandarizaziorako **Iantaldean parte hartzeko izena ematea**.

Zumaia, 2012-12-18  
Euskara batzordeburua

2012IAKU0012

**2012ko ABENDUAREN 18ko ESKAERA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEAN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK ONARTZEARI BURUZKOA**

**AURREKARIAK**

- 1.- Zumaiko Udalas aspalditik ari da egiten dituen kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak txertatzen, baina hori horrela izango dela ez dago inon jasota ez eta sistematizatuta ere.
- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako hainbat udalen ekimenez lan talde batek hizkuntza irizpideak landu ditu udal guztietan onartu eta modu orokorrean ezarri daitezen.
- 3.- Foru Aldundiko zerbitzu juridikoek eta Zarauzko Udalekoek aztertu dituzte hizkuntza irizpide hauek. Era berean, horiek txertatzerakoan ezarri beharreko araudia betetzen dela eta guztion hizkuntza eskubideak betetzen direla ere ziurtatu dute.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2012ko abenduaren 18an, EAJ eta ARALAR eta BIIDUREN aldeko botoekin, Euskara Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo simplez hartu beharko da):

1.- Behin betiko onarpena ematea Zumaiako Udalaren kontratazio publikoetan txertatu beharreko hizkuntza baldintzei.

2.- Zumaiako udalak izena ematea hizkuntza irizpideen jarrai penerako eta estandarizaziorako osatu den lantaldean, Gipuzkoako beste hainbat Udaletako Euskara Zerbitzuekin batera.

Zumaian 2012ko abenduaren 18an



**Azis Alberdik** (BILDU) gaia aurkeztu du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **12 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ARALAR, 1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak:

Abstentzioak:

**ERABAKIA:** Zumaiako udalean kontratazio publikoetan txertatu beharreko hizkuntza baldintzak onartu dira

-----

## **5.- PROPOSAMENAK.-**

### **5.1.- ALZHEIMERRI BURUZKOA**

